# FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure produktua ekoizteko, materiala erosiko dugu. Hau gauzatzeko, argi daukagu erosi beharrekoa; bi sentsore, bat altuera edo hobeto esanda proximitatea kontuan hartzen duena, eta bestea abiadura kontuan hartzen duena. Horretaz gain, CO2ko hainbat bonba eta sarea egiteko tela erosiko dugu ere.




Sarea egiteko, Gureak enpresarekin hitzarmen bat sinatuko dugu. Horren arabera, guk erositako tela guztiak bidaliko dizkiegu eta bertan saretxoa eta gerriko poltsa josiko dituzte gero gure lokalera guztiz eginda bidali ahal izateko.

Ondoren, gure lokalean, gure kabuz sentsoreak, Xoss enpresatik eskuratutakoak, programatuko ditugu eta saretxoan kokatuko ditugu aire bonbarekin batera.

Aire bonbak, kableak eta mikrochip-ak Alibaba enpresan erosiko ditugu, kalitatea eta prezio eskuragarriak

eskaintzen dizkigutelako, beste enpresa batzuekin konparatuta.

Produktu hau mundu osoan zehar merkaturatzeko Amazon bidez zabalduko dugu. Horretaz gain, guk sortutako webgunean ere salmentan jarriko dugu eta azkenik gustatuko litzaiguke egoitzetan aiton-amonei eskaintzea. Hasieran egoitz lokaletan eta arrakasta badu, perimetroa zabalduko genuke.

